



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia  
Europako Gaietarako Zuzendaritza

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior  
Dirección de Asuntos Europeos

## Europako Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera (TUEren 50. artikulua) Brusela, 2019ko martxoaren 21a

*Europar Batasuneko 27 Estatu kideen Estatu- eta Gobernu-buruek (denek, Erresuma Batuak izan ezik) bilera egin zuten Bruselan 2019ko martxoaren 21ean.*

EBko Tratatuaren 50. artikulua (TUE) arabera, EBko gainerako 27 Estatu kideei dagokie aho batez onartzea EBtik ateratzeko epemugaren luzapena onartzen ote duten.

Brexitaren gaineko berariazko hitzorduekin gertatzen den moduan, bilera May-ren hasierako hitz batzuekin hasi zen, eta ondoren, gainerako 27 Estatu kideek luzapenaren gaineko eztabaidari ekin zioten. May-rekin egindako saioa luzeagoa izan zen, negoziazioa hasi zenetik azkeneko bi urte hauetan izan denik luzeena. Estatu kide askok hartu zuten hitza, galderak egin zituzten eta zehaztapen gehiago exijitu zioten Erresuma Batuko lehen ministroari. Ez ziren pozik geratu bere erantzunak zehaztugabeak zirelako, eta batez ere, bere hausnarketek ezintasuna azaltzen zutelako.

Hainbat orduan eztabaidatzen egon ondoren, irteera-epea luzatzea adostu zen, eta bi egoera aurreikusi ziren:

- Erresuma Batuko Parlamentuak Ateratze Akordioa onartzen badu datorren astean, EBk, 2019-05-22ra arteko luzapena onartuko du.
- Erresuma Batuko Parlamentuak Ateratze Akordio hori baztertuz gero (litekeena oso), EBk 2019-04-12ra arteko luzapena onartuko du, eta Erresuma Batuak zer bide jarraitu behar den adierazteko itxarongo du. Horrek zera esan nahi du, egun horretarako Ateratze Akordioa onartzen ez bada eta berreste-izapidetan badago, soilik bi aukera geratzen direla:
  - Erresuma Batuak Europako hauteskundeetan parte hartzea erabakitzea; kasu horretan, EBk luzapen luzeagoa eskainiko du, mugagabea, momentuz.
  - Erresuma Batuak Europako hauteskundeetan ez parte hartzea erabakitzea: kasu horretan, luzapen luze bat izateko aukera ezinezkoa da, eta automatikoki baztertzen da, eta ondorioz, akordiorik gabeko Brexit baten aurrean jartzen gara.

EBko gainerako 27 estatu kideen batasuna hauskaitza izan da negoziatorako hilabete hauetan, batez ere gai korapilatsuez aritzean, esaterako, herritarren eskubideak, “backstop mechanism” edo likidazio finantzarioa. Hala ere, batasun hori hautsi egin zen nolabait, eta eztabaida enkistatu egin zen Europako Kontseiluak iraun zituen 9 orduetan.

Politikoki, zenbait herrialdek, esaterako Frantziak, ez dute nahi Brexitak Europako hauteskundearen hauteskunde-kanpaina kutsatzea, eta nahiago dute prozesua ahalik eta azkarren amaitu. Horrela, gehien aipatutako data maiatzaren 7a izan zen, maiatzaren 9ko Sibiu-ko (Errumania) gailurraren bezpera izango baitzen, non EBk Brexitaren ondorengo etorkizuna eztabaidatzea aurreikusten duen. Frantziak burututako jarrera zurrin hori Espainiak, Belgikak edo Irlandak babestu zuten, nahiz eta ñabardurekin. Herrialde horiek Brexitaren kapitulua ahalik eta azkarren amaitzea nahi dute, eta akordiorik gabeko Brexit baterako ere prest daudela ziurtatzen dute.

Hala ere, May-ren aurrean tinko jokatzearen alde dagoen herrialde-talde horretan ere, Brexitaren luzapen luzea izateko aukera mantentzen da, kaosa saihesteko. Hori bai, horretarako, "aldaketa politiko sakona beharko litzateke Erresuma Batuan".

Bestetik, Alemaniak ikuspuntu "pragmatikoa" defendatzen duen herrialdeen taldea burutzen du, eta horren alde agertzen dira baita ere Holanda, Austria, Danimarka, Hungaria edo Portugal. Beren ustez, "Erresuma Batuan aldaketa politiko sakon" bat izatea May ordezteko izan daiteke, eta horrek luzapen askoz ere luzeagoa justifikatuko luke (gutxienez bederatzi hilabetekoa), Erresuma Batuko egoera politikoa berreraikitzeke astia izan dadin, deseginda baitago 2016ko ekaineko erreferendumaz geroztik.

Gainera, hainbat iritzi ezberdin sortu dira, Brexitaren luzapenak Europako hauteskundeetan izan ditzakeen ustezko eraginak direla eta.

Horrela, Europako Kontseiluko zerbitzu juridikoek ez dute inolako legezko arazorik ikusten epea 2019-06-30era arte luzatzeko.

Bestetik, Europako Batzordearen ustez, luzapen horrek arrisku oso larriak sor ditzake – politikoak eta legalak– EBrentzat; izan ere, gainerako 27 estatu kideei egun Erresuma Batuan existitzen den ziurgabetasunaren zati bat eramango lieke.

Bere ustez, kontuan izan behar da Europako Parlamentuko hauteskundeak maiatzaren 23 eta 26 artean egingo direla, eta Erresuma Batuak estatu-kide bat izaten jarraituko balu une horretan, hauteskunde horrek antolatu beharko lituzke. Ez balitu antolatuko, horrek esan nahiko luke hurrengo Europako Parlamentuaren eraketa legez kanpokoa izango litzatekeela, eta legez kanpokotasun horrek ondoriozko ondorio guztiei eragingo lieke, Europako Batzorde berri baten izendapena eta Europako etorkizuneko aurrekontua barne.

Azkenik, EBren jarrera Ondorioen gaineko testu batean islatu da, Erresuma Batuari tarte gehiegirik ez dionak uzten:

1. Europako Kontseiluak Theresa May lehen ministroak 2019ko martxoaren 20an bidalitako gutuna jaso du.
2. Horri erantzuteko, Europako Kontseiluak Ateratze Akordioari dagokion tresna onartzen du, baita Estrasburgon 2019ko martxoaren 11an Europako Batzordearen eta Erresuma Batuko Gobernuaren artean adostutako Adierazpen Politikoa osatzen duen Adierazpen bateratua ere.
3. Europako Kontseiluak konpromisoa hartzen du 2019ko martxoaren 29a baino lehen 2019ko maiatzaren 22ra arteko luzapena onartzeko, baldin eta Komunen Ganberak Ateratze Akordioa onartzen badu datorren astean. Kontuan izanik Erresuma Batuak ez duela asmorik Europako Parlamentuko hauteskundeak egiteko, ezin da data horren ondorengo inolako luzapenik eman.
4. Europako Kontseiluak berresten du 2018ko azaroan Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen artean adostu zen Ateratze Akordioa ezin daitekeela berriz ere ireki. Aldebakarreko konpromiso, adierazpen edo beste edozer ekintzak gutunarekin eta Ateratze Akordioaren izaerarekin bat egin behar du.
5. Europako Kontseiluak maila guztietako prestakuntza- eta arrisku-lanekin jarraitzea eskatzen du, Erresuma Batua ateratzearen ondorioen aurrean, balizko emaitza guztiak kontuan izanik.

6. Europako Kontseiluak gai horretaz arduratzen jarraituko du.